

## ALDAZIA FORMAKUNTZA EGITARAUA



*AFEST*\* dispositibo batetan TUTORE FORMATZAILE  
BILAKATU

\*Action de Formation en Situation de Travail

3 egun (21 oren)

Ikastaro bukaeran ebaluazio kalitatiboa

Presentzian egiten den formakuntza da.



## Formakuntzaren xedeak

Formakuntza honen bukaeran, gai izango zara:

- AFESTaren fase ezberdinak gauzatzeko: lanpostuko egoera praktikoak eta gogoeta-sekuentziak kudeatuz
- Zure tutore jarrera ikasle bakoitzaren lan-testuingurura egokitzeko: ikaskuntza, tutoregotza, praktiken analisia...
- AFEST formakuntza-ekintza enpresaren ekoizpenera eta jarduerara egokitzeko

## Modalitateak, metodoak eta ahal pedagogikoak

Formakuntza presentzian ematen da enpresaren egoitzan edo gure zentroan beharren arabera. Erabiltzen diren baliabide pedagogikoak honako hauek dira:

- Mac edo PC ordenagailuak (Kudeaketa eskaintzako ikastaro batzuetan izan ezik), zuntz bidezko internet konexioa, arbel zuria edo paperboard-a, bideo-proietorea edo ukimen-pantaila interaktiboa
- Lanpostuetan edo linean instalatutako formakuntza-inguruneak
- Ikastaro-materialak eta ariketak

## Aurrealdintzak

Transmititu beharreko lanbide-gaitasuna menperatzea; hori aztertzea eta azaltzea; enpresan indarrean dagoen gaitasun-erreferentziala ezagutzea

## Publikoa

Enpresako edo erakundeko langileak, formatzaile-tutore izateko identifikatua izana.

## Formakuntza hau :

- Aholkulari-prestatzaile batek gidatzen du, zeinaren gaitasun tekniko, profesional eta pedagogikoak irakasle eta formatzaile gisa baliozkotu diren.
- Bere gauzatzearen jarraipena egiten da, ikasleek eta formatzaileak egun-erdiko sinatutako bertaratze-orri baten bidez



## PROGRAMA

### Sarrera

- Bakoitzaren aurkezpenak
- Bakoitzaren itzaropenak eta lortu nahi diren helburuak
- Prestakuntzaren aurkezpena

### AFEST dispositiboaren ezaugarriak

- Enpresa barneko formakuntza, ekoizpenarekin batera eta lanpostuan bertan egina
- formakuntza faseen eta ikaslearen eta tutorearen arteko gogoeta uneen txandakatzea
- Enpresaren gaitasun-erreferentziala, eskuratu beharreko eragiketa-trebetasunen "epaile-arbitro" gisa
- Kontuan hartu beharreko ondorio estrategiko eta pedagogikoak

### AFESTean prozesu pedagogikoaren gauzatzea

AFEST eta berehala ikastea, zein da ezberdintasuna?

- Prozesu mailakatu eraikitzea, ikaslearekin adostua  
Nola bihurtu behar bat helburu pedagogiko ?
- Egoera "ikasleak" aukeratzea: zein irizpide erabili ikaslearentzat pedagogikoak eta enpresarentzat produktiboak izan daitezten?
  - Egoera berriak
  - Egoera delikatuak
  - Egoera konplexuak
  - Tentsio egoerak
  - Giza harreman aberatseko egoerak
  - Egoera esperimentalak

### AFESTean tutorearen eta ikaslearen arteko harremana

Tutore teknikoa? Coach ? Mentore? Bitartekaria: zein dira ezberdintasunak?

- Nola egokitu tutorearen erola ikaslearen heldutasun profesionaleri



- Bere gaitasuna
- Bere inplikazioa
- Enpresarentzako erronken ulermena
- Erakustaldiak, keinuaren behaketa, feedback-a, azalpen birformatua...: nola egokitu ikaskuntza teknikak enpresaren antolaketara eta etengabeko ekoizpenera?
- Akatsak egiteko eskubidea:
  - Nola ebaluatu ikasleari utzi beharreko maniobra-tartea?
  - Nola ebaluatu eta integratu bere arrakasta ezaren ondorioak?

### *Lan Partikoen adibide zonbait :*

AFEST egoera praktikoak, adibidez nola egin:

- Emaizta-adierazle fidagarriak eraikitzeko
- Denboran zehar zatitutako ekintzekin prozesu koherente bat diseinatzeko
- Nire ikaslearen heldutasun profesionala diagnostikatzeko
- Formakuntza eta enpresaren jarduera bateratzeko, zuzendaritzarekin negoziatzeko
- Ezarritako ikaskuntza-metodoak egokitze, dibertsifikatzeko eta aldatzeko
- Ikaslea bere formakuntza-prozesuan inplikatzeko
- Ikasleari bere buruarekin lan egiten laguntzeko

### Gogoeta faseak, ikasitakoa finkatzeko gakoa

- Lanari buruzko lana
- Nola sustatu ikaslearen urruntze-gaitasuna: bere lanari buruz hausnartzeko laguntzeko teknikak; lanean ikasteko aukerak aurreikusteko; meta-posizioak (egiten dut eta egiten dudana aztertzen dut)
- Norberari buruzko lana
- Nola lagundu ikaslea bere sinesmen mugatzaileak, aurreiritziak, errutinak ezabatzen - eta besteengan ikusten duenaz elikatzen?
- Gogoeta faseen beharrezko formalizazioa: zein tresna erabili hauek egituratzeko

### AFESTaren ebaluazioa :

- Portaera-gaitasunak (jakin-izaten) ebaluatzen jakitea, enpresa batean trebetasun teknikoen ezinbesteko osagarri gisa
- Gertaera esanguratsuen garrantzia AFEST bat ebaluatzeko  
Nola definitu, zein egokitasun dute?



- Nahasketaren arriskua: ikaslearentzako emaitza ebaluatzen dugu... ala enpresarentzako?

## Saioren sintesia :

- Ingurune bakoitzean gara daitezkeen aplikazio zehatzei buruzko hausnarketa
- Animatzaileak parte-hartzaile bakoitzari emandako aholku pertsonalizatuak
- Eskuratutako gaitasunak balidatzeko ebaluazio formatiboa (galdetegia) - Ahozko laburpena eta berehalako ebaluazioa

Programa honen edukia egokitu daiteke ikasleen maila, aurrebaldintzak eta beharren arabera

## Ikasitakoaren ebaluazio-modalitateak

- Formakuntzan zehar, ebaluatutako testuinguruko egoera praktikoen bidez
- Formakuntzaren bukaeran, auto-ebaluazio galdetegi baten bidez

## Formakuntzaren irisgarritasuna

Aldazia formakuntzaren irisgarritasuna errazteko engaiatzen da. Dispositiboa publiko guztiari irekita dago.

Elbarritasun egoeran dauden pertsonentzat, gelak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat eskuragarri daude.

Aurretik lan egingo dugu pertsoneri egokitzen zaien eta egokiena den zerbitzua eskaintzeko

Formakuntzarako finkatzatzeko modalitateak eta epeak

## Diruztatzea

Enpresak edo OPCOK finantzatua formakuntza-aurrekontuaren bidez. Talde bat osatu bezain laster, barne-formakuntza antola daiteke

## TARIFA (INTRA) :

900 € pertsonaka 5 kideko talde batentzat

1500 € pertsonaka 3 kideko taldeentzat

Beste moldez, gurekin zuzenean adostuz.